

Ibarra Racing, onenekin

Koldo Alonso
gidariak Yamaha
Challenge-an parte
hartuko du ▶ 6




Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-06-24 ▶ IV. urtea ▶ 920. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Txupinazoarekin batera lehertu da jai giroa Tolosan

SANJOANAK ▶ Asteburu osoan aspertzeko astirik
ez dute izango tolosarrek eta kanpotik datozenek ▶ 2,3



Tolosako erraldoiek zaindu zuten udaletxea txupinazoaren unean. N. LATABURU



I. GARCIA

Ahinitze Errasti eta Alex Padillarentzat sariak

VILLABONA ▶ Amodiozko Gutunen
Lehiaketako lau sariak irabazi dituzte
Aretxabaletakoak eta Villabonakoak ▶ 4

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Rekondo, Otaño eta Mujika, 2. mailako aizkora kanporaketan

Tolosaldeko lau segalari Gipuzkoako
txapelaren bila, bihar, Oiartzunen ▶ 7,4

BIDEGOIAN ▶

Joxean
Azkue
herriko
arkitekto
zena gogoan
izango dute

Azkuek gauzatu zuen
pilotaleku inguruko
urbanizazio proiektua;
bihar plaka jarriko dute
haren omenez ▶ 5

**Tolosako
ZEZEN-PLAZA**

EKAINAK 17 ARRATSALDEKO 6 OREKAK JUNIO	EKAINAK 25 ARRATSALDEKO 6 OREKAK JUNIO
ZEZENKETA EXTRAORDINARIA CORRIDA DE TOROS A ZEZEN TOROS de la Sociedad de Ganadería Toros D. ISAIAS Y D. TULIO VAZQUEZ PARA LOS PASADORES:	ZEZENKETA MONUMENTAL CORRIDA DE TOROS A ZEZEN TOROS de la Sociedad de Ganadería Toros ALCARRUCEN PARA LOS PASADORES:
DENIS LORE SANCHEZ VARA IKER JAVIER LARA	CESAR RINCON JAVIER CONDE SEBASTIAN CASTELLA
ZEZEN-ERREKORTARIEN 2. LEHIAKETA guz eguneko espezialista hobenerekin	
SARRERAK SALGAI SAN SEBASTIAN	
TOLOSA Bar "Asteasuarra" 943 673 186 Café Bar "Frontón" 943 651 470 Asador "Oñe" 943 651 911 Bar "Cantábrico" 943 653 987 Bar "66" 943 671 937	SAN SEBASTIAN Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial BAIONA Office de Turismo 0033 559 460 146 Place des Basques

**ABONOAK
SALGAI
%10
MERKEAGO**

Argibideak eta erreserbak:
943 64 16 66
659 67 65 70
10:00-13:00 • 17:00-21:00



SANJOANAK ▶

AZOKA ▶

Lasaitasuna atzoko azokan, San Joan bezperan

Jaiak direla eta, aste honetan egun bat lehenago egin da larunbateroko azoka

PABLO ALBERDI

Atzo lasaitasuna bizi genuen aurreratutako azoka egunean. Sanjoanak larunbatan direla eta, larunbateroko azoka ostiralean egitea erabaki zuten. Giroa ez zen joan den astekoa izan; baina, hala ere, animoso igaro zen atzoko goiza. Eskaintza ere oso puntu onean dago orain, eta joan diren egunotako euriak eragin oso positiboa izan du produktu zerrendarengan.

Barazkien artean, porruak, azelgak, kalitate handiko tomateak, lekak, oraindik babak eta ilar batzuk, letxuk, azenariok, erremolotxak eta tipulak ere ikusi ziren.

Aipatzekoa da perretxiko zerrenda. Nahiz eta agortze-egun egon, oraindik, eta zihurrenez euriangatik, ikusi genituen ziza hori batzuk, beste artean. Ea datozten asteetan mantentzen den produktu hau.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Hortentsia	10,00	12,00
Salbia	1,00	1,20
Bertako produktua		
Mikologikoak		
Ontlo	16,00	30,00
Ziza	18,00	35,00
Barazkiak (sorta)		
Erremolabta	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00

**Lehertu da jaia!****Txupinazoarekin eman diote hasiera sanjoanei; gaur, eskopetarien prozesioa izango da ekitaldi nagusia**

E. EZEIZA - N. LATABURU

Pssss... Pum! Gora San Joan! Honela eman zieten hasiera atzo, haur, gazte eta helduek, Tolosako jaiak. Musika, dantza eta festa giroa ez da faltako asteberu honetan. Kanpai hotsekin batera, 19:00etan, puntual bota zuten suzuria udaletxeko balkoitik festen hasiera iragarri. Ordurako prest zeuden Plaza Zaharrean buruhandi, erraldoi, dultzainero eta txistulariak, haurrekin batera kalejirari hasiera emateko. Hala, batera eta bestera ibili ziren historia, folklorea, eta Inauteriak ordezkatzeko dituzten sei erraldoiak: Domenjon Gonzalez de Andia, Doña Katalina de Tapia, Isabelita, Pello, Bordondantzari eta Neskatala izenekoak.

Beranduxeago, 19:30ak aldera, Udabatzarra Arrameleko

San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzea joan zen. Aldi berean, Berdura plazan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoek kontzertua eskaini zuten.

San Joan sua

Urteko gaurik motzena izan zen atzokoa, San Joan bezpera, usadioak dioen bezala, «izpiritu txarrak uxatzeko» balio duena. Etxean alferrik dauden tresnak, eskolako liburu zaharrak eta erretzeko egun aproposa. Hala, Tolosan ere modu berezian ospatu zuten gau misteriotxu hau. 22:00etan, Andre Maria plazan, Udabatzarra bertan zela, orduerdiz edo, herritarrek suaren inguruan salto egiteko aukera izan zuten. Ondoren, behin sua itzalita zegoenean, Udaberri Dantzari

Taldeak eta Tolosako Musika Bandak dantza eta doinu goxoekin apaindu zuten jaia. San Joan zortzikoa jo eta gero, Musika Banda kalez kale ibili zen, eta jarraian, Tolosako Orfeoia abesbatzak kantatu zuten.

Txinpartan, erakusketa

Txinparta elkarrekin ere San Joan jaiak ongietorri berezia egin zuten. Iaz 75 urte bete zituela eta bere pintura lehiaketari Felix Yarza izena jarri zioten, kide honek kultur ekitaldien alde egindako lanarengatik. Bada, aurten ere antolatuta dute lehiaketa eta lehiaketa izandako lanen erakusketaren inaugurazioa egin zuten arratsaldean. Aurtengo saridunak ere jakinarazi zituzten. Hauek izan dira, hain zuzen ere, irabazleak: Lehen postuan, Nerea Lo-

pez, 240 euroko sariarekin; bigarren, Ricardo Sempere, 180 euroekin eta hirugarren Isabela Mugika, 120 euroekin.

Eta gaur, zer?

10:00etan Meza Nagusia izango da Santa Maria parrokiaren Ondoren, prozesioa egingo dute, eta orain dela urte askotako ohitura bat berreskuratuz, erraldoiak irekiko dute ibilaldia. Bertan parte hartuko dute ere Udabatzako kideek, kofradiek eta Tolosako bordondantzariak. Aldi berean, elkarrekin eskopetariak orde-nantzetako salbak botako dituzte. Hala, ondoren, eskopetari konpainiak Trianguloan bilduko dira berriro, azken deskargak egiteko.

San Joan festak direla eta, aipatzen diren kale hauetan autoak aparkatzea debekaturik egongo da: San Frantzisko kalea, Pedro de Tolosa kalea, Oria kalea, Nafarroa etorbidea eta Zumalakarregi kalea.

SEGUROS BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

Gozotegia eta okindegia

EZEIZA

Teilak eta Zigarriloak

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

ZERBITZU BULEGOA

AIXA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

KLIŠK

Argazki Erreportaiak

Argazki digitalak
0,19 eurotik
0,32 eurotara

San Franzisko, 6
943 11 85 45 • TOLOSA

KIKATZA

PINTXOAK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK

Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

Erraldoien dantzaren harira

Erraldoien konpartsak protagonismo gehiago eskuratuko du eta, gaur, prozesioaren aurretik joango dira dantzari lehen aldiz



Txupinazoarekin batera erraldoiek alaitu zuten Plaza Zaharreko giroa, euren dantza saioekin. N. LATABURU

N. LATABURU

Aurtengo sanjoanetan erraldioen konpartsaren parte-hartzea esanguratsua izango da eta, lehendabizikoz, gaurkoan prozesioaren aurretik irtengo dira dantzari. Kultur zinegotzi Andoni Iturzaetak jakitera eman duenez, «proposamena aztertu genuen eta baiezkota izan daitekela» izan ere, «kolorea eta alaitasuna» eskainiko diote prozesioari, beti ere, seriotasunarekin jardungo dutelarik.

Halaber, berrikuntza honen bitartez, «duela 40 urte inguru Korpus Egunean zegoen ohitura» berreskuratu nahi izan du Udalak. Izan ere, garai haietan erraldoiak prozesioaren buru ziren eta bereziki egun horretarako prestatutako euren dan-

tzak eskaintzen zituzten, batik bat, haurren gozamenerako. Aurten erraldoiak prozesioan barneratzearekin bat, «txikiek ere gehiago gozatea» espero dute udal ordezkariak.

Meza Nagusiaren ostean, erraldoiek egunerako bereziki prestatu duten baltsa dantza-tuko dute, eliza atarian. Ondoren, dantzarien eta eskopetarien txanda izango da.

Baina dagoeneko lehen agerraldia burutu dute; atzo agertu baitziren, Plaza Zaharrean, hain zuzen, txupinazoaren jaurtiketaren anean, bertaratu

ziren meeen gozamenerako. Bihar ere jardungo dute herriko kaleak alaituz, goizean goiz, gainera. Konpartsak 11:00etan hasiko du bere ibilbidea, eta 13:15ean bukatuko du, Plaza Zaharrean. Orduntxe haurrei zuzendutako festatxoari ekingo dute, puzgarri, gozoki eta guzti.

Usadioak berreskuratzearren alde, erraldoiak festaren zati garrantzitsu izango dira, beraz, San Joan hauetan. Guztia gutxi baita herriko patroiarren omenezko ospakizunak borobilat izan daitezzen.



Txinpartako Pintura Lehiaketaren irabazlea: Nerea Lopez. N. L.



Txarangak alaitu zituen kaleak BetiZu-koekin batera. ESTI EZEIZA



Gaur, errekortariak gurean

Erredakzioa ▶ Zezen-plaza egungo errekortari onenaren bilgune izango da gaur, 19:30etik aurrera. Errekortarien Lehiaketan. Aurreko urteko arrakasta dela eta, bigarren urtez antolatu du Udalak lehiaketa, Sevillako (Espainia) zezenak ekarriko dituztelarik. HITZA

“Xirimiri” **Ondo ibili!!**
Txokolalegia
 Errementari kalea, 40
 20400 Tolosa
 Telef. 943 67 52 23

Tolosaldea **Festa onak**
BUS S.L. **pasa**
Sanjoanetan!
 Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak
 Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia EtoB,9 • TOLOSA

Marcel **ILSAPINDÉCIKO CARAK**
EDERGINIZA
 Santa Clara, 9
 TOLOSA
 943 671930

MATXINA **Sanjoanak**
ondo pasa!!
Etxekotresna elektrikoaren konponketa
 Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

HERNIALDE
JAIETXEA
 helix garbido
 garbitze laskorain
Ondo pasa Jaiak!
 martin jose iraila, 10 • tolosa
 tel.: 943 67 56 54

XOILAN, S. L.
 Telf.-Faxa: 943 67 06 26
 659 04 57 65
 Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulagoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zoruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

Dietetika eta Belardenda
ZAINBERRI
 Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

VILLABONA ▶ AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

Ahinitze Errastik eta Alexander Padillak lortu dituzte lau sariak

Errasti aretxabaletarrak sari nagusia eta gazteenarena jaso ditu; Padilla billabonatarrek, bigarrena eta herrikoa

IMANOL GARCIA

Aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketako lau sariak bi idazle gazteren artean banatu dituzte, biak 1987 urtean jaioeta. Ahinitze Errasti aretxabaletarrak sari nagusia jaso du eta baita gazte saria ere, 25 urte aspikoena. Alexander Padilla billabonatarrek bigarren saria eskuratu du, eta baita herriko lehenengoa ere.

Ez zuen ez bata ez besteak saririk espero, baina lanak aurkeztu dituzten 24 lagunetatik bereak aukeratu dituzte epaile aritu diren Juan Kruz

Igerabide eta Karlos Linazaso idazleek, Xabier Zabala Euskara Batzorde buruak eta Maite Arregi Euskara teknikariak banatu dituzte sariak. «Epaiahaiak aurkeztutako lanen maila nabarmendu dute, batez ere gazteenek egindakoak eta bi saridunei idazten jarraitzea animatu dituzte», adierazi dute Villabona Udaleko bi ordezkariak.

Errastik bere arbaso baten bizitza oinarri hartuta idatzi zuen *Faustino* izeneko gutuna: «Nire aitonen osaba gaztean Argentinara joan zen. Hortik abiatuta, gazte zela Aretxa-



Ahinitze Errasti eta Alexander Padilla saridunak. I. GARCIA

baletan izandako maitaleari Argentinatik, bizitzaren azken urteetan, bidaltzen dioen gutuna irudikatzen dut». Alabak ama hil berriari idatzen dioen

gutuna da Padillaren *Maitasunik gabeko mundua, mundu tristea*: «Amona hil zenean amak sentitutako mina islatzen dut gutunean».

SEGA ▶

Eskualdeko lau segalari Gipuzkoako txapelaren bila

Aranalde, Gabirondo, Zuriarrain eta Alkorta bihar lehiatuko dira Oiartzungo Pikoketan

I. GARCIA

Mikel Aranalde eta Joxe Gabirondo gazteluarrak dira faboritoak. Andoni Zuriarrain amasarrak bi horiekin «borrokan sartzea» espero du, eta Mikel Alkorta asteasuarra «aurreneko finala izanda, lan txukuna egiten» saiaturiko da. Laurek

bihar jokatu dute elkarren aurka Gipuzkoako Segar Txapelketa, Oiartzungo Pikoketan. 18:00etan hasiko da finala eta ordubeteko lana egin beharko dute.

Hitzak Gabirondorekin, Zuriarrainekin eta Alkortarekin hitz egin ahal izan du, eta guztiak gustura daude egindako

entrenamendu saioekin. Gabirondo ez zen gustura gelditu kanporaketako saioan, eta finalerako espero du bere lana hobetzea: «Nahiko ondo ibili naitekeela uste dut». Zuriarrain «oso animatuta» dago eta «ahal duen guztia» emango du norgehiagokan. Alkorta «presiorik gabe» aterako da. Fina-

lera iristea zen bere helburua, eta hori lortu du.

Ikuskizun interesgarria, beraz, lau segalariak emango dutena. Aurretik emaitzarik ematea zaila da horrelakoetan. Alkortak gogorarazten duen bezala, «ikus beharko da zer belar dagoen eta bakoitzak duen eguna».

LEABURU ▶

Gizonezko bat hil da hondeamakina gainera erorita

ERREDAKZIOA

Gizonezko bat hil zen atzo eguerdian Leaburuko Errotatik baserrian lanean ari zela. 37 urteko FL.Vri, dirudienez, hondeamakina irauli eta gainera erori zitzaion. Osasun zerbitzuak istripua gertatutako lekura iristera-koan gizonezkoa suspertzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Gorpua Donostiako Patologia Auzitegi Zerbitzura eramán zuten.

IRURA ▶

Datorren astean hasiko dira parroko obrak

San Miguel parroko obrak datorren astean hasiko dira. Beraz, biharko elizkizunak Herri Ikastolako aretoan egingo dira. Lanak Ipuru enpresa egingo ditu. Parrokia-zen zaharberritzea bultzatzen ari den herritar taldeak berriro deia luzatu die herritarrei, Iruratik kanpo bizi diren herritarrei, enpresei eta abar diru laguntza eske.

ANOETA ▶

Udal Pilota Eskolaren berri emango dute etzi

Anoetako Udal Pilota Eskolaren berregituraketaren berri emango dute, etzi, 19:00etan, udaletxean egingo den bileran. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Anoetako Udalak eta Kuku pilota elkar-reak garatutako proiektua aurkeztuko dute.

Nafarroa etorb. 2
TOLOSA
Tel.: 943 65 47 95

ZABALA

KAFEAK

Nagusi plaza, 2
ORDIZIA
Tel.: 943 88 29 88

Sam® Kartazalak
Poltsak

Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxes. 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

FESTAK ONDO PASA!

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxes: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

TOLOSAGA JA

Tolosako energia. Zurea
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostejeta, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxes: 943 67 55 11

zute

943 67 14 27

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Joxean Azkue gogoan, plaka jarriko dute

Herriko arkitektoa zenaren proiektua gauzaturik, frontoian bilduko dira bihar



Frontoiaren aurreko plaza egokitu egin dute. n. u.

NEREA URBIZU

Bihar, Bidegoango pilotalekuaren parean dagoen plazan bertan arkitekto lanak egiten zituen Joxean Azkue gogoan izango dute.

11:00etan meza ospatuko dute eta, jarraian, bertara, plaza berrira joango dira, eta Joxean Azkueri egindako plaka

erakutsiko dute. Ondoren, herriko ostatuan elkartuko dira.

Joxean Azkuek, gaur egun Bidegoango pilotaleku inguruko urbanizazio lanen proiektua egin zuen: plazatxoa, iturria, frontoian autoak aparkatzeko lekuak, akzesioak, argia, eserlekuak, eta abar.

Bihar, beraz, Joxean Azkue arkitektoa gogoan izango dute.

AMEZKETA ▶

Bertso afarirako txartelak salgai

Hurrengo ostiralean bertso afaria egingo dute Amezketako frontoi zaharrean, Euskara Elkarteak antolatuta. 21:00etan izango da, eta ohiko tabernetan eros daitezke txartelak, 15 eurotan. Astelehena arte izango da erosteko aukera. 20:00etan, Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu bertsolariak balio anitzeko gelan bertso saioa eskainiko dute. Azken ekitaldi honetako sarrera doan izango da. Euskararen alde dagoen eta bertsozaletasuna gustuko duen guztia gonbidatuta dago.

GIZARTEA ▶

San Antoniora joateko autobusa

Bihar, Urkiolako San Antoniora joateko asmoa du lagun talde batek. Horretarako autobusa antolatu dute. Alegiatik aterako da, honako telefono zenbakira deituz gero zehaztuko duten orduan: 943 65 30 12.

IBARRA ▶

Espaloi berria jartzen hasiko dira etzi

Astelehenean, Ibarra Euskal Herria kaleko 35. zenbakitik 41. zenbakira doan espaloiarenean zabalte lanak hasiko dituzte. Gune honetan, beraz, ezingo da aparkatu egun horretatik aurrera. Bestalde, Belabietako bidegurutzetik Uzturrera doan bidearen konponketa lanak ere hasiko dituzte.



Garmendia, saio batean. HITZA

IKAZTEGIETA ▶

Lide Garmendiak, berriz ere, Euskadiko malguenen artean seigarren egin du

Lide Garmendia ikaztegiatarra, Tolosa CF gimnastika taldeko 11 urteko gazteak, hain zuzen, seigarren egin du Euskadiko Txapelketan, hainbat txapelketatan parte hartu eta emaitza oso onak lortzearen ondorioz. Lehengo urtean ere Euskadiko Txapelketan hartu zuen parte, eta emaitza garrantzitsuak lortu zituen sokan eta esku libreko modalitatean. Halaber, ikaztegiatarra partaidea den alebinen taldeak, Jaione Txapartegi, Lorena Oiarbide, Lara San Sebastian, Jasmine Alvarez eta Miren Ezeiza, hirugarren postua eskuratu zuen txapelketan. Lide Garmendiarekin aritzen dira entrenatzaile lanetan Arantxa Aristondo eta Jaione Tejedor.

66

Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.
-- 7etan irekita --

jai zoriontsuak pasa!

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 67 19 37

aldama_tapia
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea, 7 • 20400 TOLOSA, Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

in→ gremioen koordinazioa

argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arotzak

eskaialista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

ALDIZKARIAK eta PRENTSA

ROSS

LIBURUDENDA

Tel.: 943 65 14 73 • S.Frantzisko • TOLOSA

Gorriti
liburudenda

Prensa eta aldizkariak

Belate pasealekua, 1 • Tolosa • Tel.: 943 67 60 53

Nafarroa etorb, 11 • Tel.: 943 65 12 64

OSKI

Emeterio Arrese, 5
Tel.: 943 65 56 21

JANTZIAK • **OINETAKOAK** • **TOLOSA** • **GAZTEA**

GUTUN@K ▶

Araxes-eko langileek badute zer esanik

Agustin, Araxes-eko langileon ezjakintasuna ez zen ekainaren 17an HITZako artikulua ondo-oren hasi, zuek Araxes-era etorri zineten egunean baizik. Zure eskutitzean emandako azalpen guztiak bagenekizkien, ez zuek esanda, egunegun biziari dizkiguzuelako baizik. Azken urte honetako zuen kudeaketa ikusiz, aipatzen duzun «enpresaren jardura bideratzeko» asmo hori ez zaigu oso argi geratzen. Aipatzen duzun kapital sozialaren ezarpena ezin ukatuko dugu,

baina, lokazti horietan ibiltzea gustuko duzuela jakinda, zein zen jasoko zenuten ordaina? Araxes ixtea? Ez dugu sinisten 600.000 euro horiek inongo bermerik gabe arriskatu dituzuenik. Zein da azpizjokoa?

Araxes-eko langile garen alde-tik, guk ere baditugu gure ezagupenak: gure produktuen merkata krisian dagoela? Galdetu Brandiari (gure produktu merkatauan geratu den paper ekoizle bakarra). Zeri deitzen diozu produktibitatea hobetzea? Orduarte beren lana ondo baino hobeto betetzen zuten arduradunak baztertzea? Beraien orde zuek nahi zenuten eran mugituko zenuten txotxongilo bat jartzea? Argi eta gas hornitzailearen abixua maia-

tzaren 16an iritsi zen Araxes-era. Zer egin zenuen maiatzaren 22rarte? Erantzuna badakigu: Londresen izan zinen ardo azoka batean! Hor ikusten da zure arduraren noraino iritsi den.

Gasa eta argia paper fabrika baterako beharrezkoak direla jakinda, zer dela-eta ordaindu zenituzten zure anaia Julioren eta beste laguntxoekin zorrak argia baino lehen? Kale gorrian utzi dituzuen langileak ordaintzeko eskaini zeniguten stock-aren proposamena serioa dela deritzozue? Langileekin ez da jolasten. 35.000 euroei buruz, gure hileko soldataren zati bat besterik ez da. Gainontzekoa ahal bezain laster ordaintzeko gonbita luzatzen dizugu.

Guk, langileok, ez dugu inongo momentutan enpresako jardura galarazi. Ez ote zenioten zuek eta zure anaia Juliok Araxes-eko kudeatzaile txotxongiloari gehiago ez etortzeko agindu?

Aipatzen dituzun «kalte pertsonal konponezin» horiei buruzko argibide bat eskatzen dizugu: gu eta gure familiaratekoak ez al gara pertsonak? Ez al dugu sufritzen? Azken 13 hilabete hauetan jaso ditugun soldata gure lanaren ordain izan dira. Agustin, aipatzen duzun «kontrpartida gabeko dedikazio» hori, norik sinez deza? GKE bateko mezulari baten hitzak dira horiek, ez zureak!

Araxes-eko langileok irtenbide bat nahi dugu orain!

AINHOA PETRALANDA ETA AITOR IZAGIRRE
(ARAXES PAPER FABRIKAKO LANGILEEN
IZENEAN) ▶ TXARAMA

Azala eta mamia

Orain gutxi, Ibarroko Udalak lehiaketa antolatu du, Euskara Zerbitzurako logotipoa aukeratzeko. Azala. Orain gutxi, Ibarroko Udalak aparejadorea kontratatu du eta, itxura guztien arabera, euskaraz ez daki. Mamia.

Euskara biziberritzeko planak gora, planak behera, argazki polita, bilera zurigarriak... Garbi agertzen da zerk duen, gero garrantzia. Fatxada hutsa, axala. Azala galanta batzuek.

JESUS PEÑAGARIKANO ETA
ONINTZA ARANALDE ▶ IBARRA

EKONOMIA ▶



Papergintzaren «egoera larria» salatu dute

I. Terradillos ▶ Papergintzari irtenbideak ematea exijitu zuten atzo ehunka lagunek Tolosako Triangulotik abiatuta egin zuten manifestazioan. Izan ere, papergintza egoera larrian aurkitzen den adibide da Paperalia eta Araxes lantegiak

itxi dituztela eta horrekin batera 180 langile inguru kaleratuak izan direla. Hori dela eta, Tolosaldeko eta Goierriko langileak deitu zituen LABek manifestazioan parte hartzea, langileen eskubideen alde borrokatzeko. I. TERRADILLOS

IBARRA ▶ MOTORRA

Koldo Alonso
Yamaha
Challenge-an

Ibarra-Racing Bearzun moto taldeak proiektu berria aurkeztuko du

ERREDAKZIOA

Ibarra-Racing Bearzun motolasterketa taldeak, Bearzun-Detall zeramika etxearen laguntzarekin eta Koldo Alonso gidari dela, Yamaha Challenge Txapelketan parte hartzeko proiektua sortu du. Espainiako Jarama, Cheste eta Albacete bezalako zirkuituetan egingo diren 6 lasterketek osatzen dute Txapelketa. Yamaha etxe-

ak antolatzen du, eta helburua gidari berrien promozioa bul-tzatzea izaten da.

Proiektu hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan duten laguntza eskertu dute talde-ek. Halaber, herritarrak gonbidatu nahi dituzte «Ibarroko herriaren izena zabaltzen duen talde hau ezagutarazteko» datarren asteartean, 20:30ean, Karlatz garagardotegian egingo duten aurkezpena.

Alda ezazu zure etxetresna elektrikoak



Euskal energiaren erakundeko plan Renoverekin

75 euro abonatzeko dizkizugu ondorengo hauetan: garbigailua, baxera garbigailuak, konbiak, hozkailuak eta izozkailuak

Gudari, 7 • Tolosa • Tel./faxa: 943 65 46 50

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Tabernaria. Villabonako taberna baterako neska euskalduna behar da. 15:30etik 22:30era. Igardeetan jai. 650 48 79 34. Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Harreragileak, telefonistak, atezainak. Plazak libre. Eskakizuna: Eskola Agiria. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plazak libre. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Basozainak. Plazak libre Foru Aldundirako, udaletarako, Eusko Jaurilaritzarako. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko udaletxeetarako behar dira. 943 31 37 82.

Lanbideetako ofizialak. Pintoreak, mekanikoak, elektrikariak, artzatz, igeltseroak behar dira. Mugagabeko kontratua. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako, ikastetxeetarako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Bergaran, Hernanin eta Errenterian peoiak, garbitzaileak eta lorezainak behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Lanpostu finkoak betetzeko plazak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

ARAMBURU
Alokatzeko. Sabuen apartamentua 2 gelakin eta haize egokituarekin.
Alokatzeko. Pisuak. Tolosan eta Anoetan.
Alokatzeko. Garajeak. Araba etorbidean.
Alokatzeko. Lokalak. Furoes, Amaroitz eta Laskorain kalean.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizialko lokala.
Salgai (Tolosa). Pisu Belate kalean. 75 m². Igogailuarekin.
Salgai (Tolosa). Pisu San Frantzisko, 17. 140 m². Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain kalean. 5.-a. Igogailuarekin.
Salgai (Tolosa). Pisu Larramendi kalean. 112 m². Igogailuarekin.
Salgai (Garajeak). Tolosako Leidor azpian eta Ibarra, karabana sartzeko garajea.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

HERRI KIROLAK ▶

Rekondo, Otaño eta Mujika, 2. mailako aizkora kanporaketan

Beste 9 aizkolarirekin batera, Arbizun jokatu dute; sei onenek finalerako txartela eskuratuko dute

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan ekinen diote, berriro, Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketa, eta bertan izanen dira, besteak beste, Leitzaldeko eta Ibaraldeko hiru aizkolari gazte ere: Jon Rekondo leitzarra eta Jexux Mari Mujika eta Unai Otaño ibartarrak. Aurreneko biek, urrian jokatu zuten 3. mailako txapelketan eskuratu zuten mailaz igotzeko eskubidea; izan ere, Mujikak irabazi zuen txapela eta Rekondo azpitxapeladun izan zen.

Arbizun, bertako plazan jokatu dute bihar kanporaketa, 19:00etan hasita. Eta aitaturako hiru aizkolariez gain, beste bederatzik ere parte hartuko dute; hauek dira: Jose Etxebeste, Aitor Senosiain, Juan Jose Lopez, Jabier Aranberri, Julen Mendieta, Xabier Mindegia, Manuel Kañameres, Jose Angel Zubiaga eta Luis Mari Belarra. Guztira, beraz, dozena bat aizkolari ariko dira jokoan.

Iaz, Juan Manuel Erasun zizurkildarrak ere parte hartu bazuen ere, aurten ez da txapelketan izanen.

Hala, egin beharreko lana honako hau dute: 3 kana-erdiko, 60 ontzako bat eta beste 72 ontzako bat ebakitzea.

Sei aurrenekoak finalera

Federaziotik jakinarazi dute, Arbizun jokatu den kanporaketa honetan, aurreneko sei aizkolaria sailkatuko dira finalerako; «iraillean, seguraski Nafarroako herriren batean» jokatu omen delarik 2006ko Euskal Herriko II. mailako aizkolarien txapelketako azken saioa.

LEITZA ▶ KULTURA

Gaztetxoan 'Ingurutxo', ederra

Beroari aurre eginez, txukun dantzatu dute San Joan bezperakoan

J. ASTIBIA

Atzo arratsaldean txukun asko eta egoki asko dantzatu zuten *Ingurutxo*, soka luze-luzea osatu zuten gaztetxoak.

Eguzkiaren beroak ez ezik, bertara bildu zen jendetzaren txaloen beroan, *Ingurutxo* ederki dantzatu zuten herriko gaztetxoak: dantzari ttikien taldekoak aurre eta atzean gidari zituztela, haur ttiki eta kozkorxeagoak osatu zuten soka, txukun. Ondoren txistor-opilak banatu zituzten umeen artean, freskagarriekin.



Jendetza bildu zen gaztetxoan *Ingurutxo* ikustera, beroak bero. J. A.

ARESO ▶ HEZKUNTZA



Aresoko umeak oporretan dira

J. Astibia ▶ Atzo izan zuten eskolako azken eguna aresoar ttikiak ere. Joko desberdinak egin zituzten hiru geletako ikasleek. Ondoren, gosari goxoa egin eta oporretarako prest jarri ziren. J. A.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA



Baita Amazabalekoak ere

J. Astibia ▶ Eta Amazabal institutuan ere halaxe egin zuten: musa, pictyonari-a, marrazki lehiaketa, futbola... aukeran izan zituzten, hamaiketakoaren aurretik. Baina, bitartean, azken azterketa egiten aritu zenik ere izan zen. J. A.

LEITZA ▶ POLITIKA



Azken atxiloketak salatuz

J. Astibia ▶ Herenegun iluntzean elkarretaratzea egin zuten Leitzan, aste hasieran egindako 12 euskal herritarren atxiloketak salatuz, «konponbide demokratikoren alde». J. ASTIBIA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶



Pakita Mayo Malcorra

Garbi ta txukun mantendu dezuzuk zure ingurunea
beti gogotsu, beti aurrera,
beti langile xumea
bañan gazterik iritsi zaizuzagurtutzeko unea.
Eta handia egingo zaizuzutzi dezun hutsunea

Belauntzako sendiak

HONDARRIBIA, 2006ko ekainaren 24a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 24a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsalde



beroena

22

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsalde



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

SANJOANAK

Abaltzisketa. 11:00etan, meza nagusia; gero, herriko gazteen trikitixa emanaldia; 13:00etan, II. Toka Txapelketa; 18:00etan, pilota partidak; segidan, bertso saioa Larrañaga eta Joxe Agirrerekin; 21:00etan, sagardo dastaketa plazan; ondoren, Kupela taldea.

Anoeta. 11:00etan, txistulariekin kalejira; 12:00etan, meza jubilatuentzat; ondoren, Udal dantzari eta txistulariak jubilatuen omenez; 13:30ean, jubilatuta eta pentsiodunen bazkaria eta dantzialdia.

Belauntza. Festa ofizialak: 11:00etan, meza; ondoren, herriko tabernan hamaiketakoa; Mañukorta eta Gorrotxategi bertsolariak; 18:00etan, pilota partidak; 19:30ean, bertsolarien bigarren saioa; 20:00etan, herri kirolak: Josetxo Goikoetxea, Ebebeste eta Olasagasti; ondoren, erromeria goizaldera arte Xabier eta Mikel trikitilariarekin. Festa alternatiboak: 11:30ean, hamaiketakoa; 18:00etan, Berastegiko dantzariak; ondoren, txokolate-jatea; 21:00etan, tortila lehiaketa; gero, aforia.

Tolosa. 07:00etan, Alkate Soinu; gero, diana; 09:00etatik aurrera, txirrinlulariak-XXXIV. Jose M^a Anza Memoriala; 09:30etik aurrera, eskopetariak eta Tolosako Musika Banda, diana, desfilea, San Joan Alardea; 10:00etan, Beotibar pilotalekuan III. HITZA esku pilota Txapelketaren finalak; 10:00etan, Meza Nagusia, Santa Maria parrokiaren. Ondoren, prozesioa (Udalbatza, kofradiak, Tolosako bordondantzariak eta erraldoiak); aldi berean, elkarreko eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte; ondoren, eskopetari konpainiak Trianguloan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko; goizez eta arratsalde, haur jaialdia, Sortez Garbia plazan; Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin kontzertua, Plaza Berrian; 16:45ean, Udalbatza,

Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko; ondoren, Arrameleko San Joan kaperako arrats otoitzetan parte hartuko dute; amaitzean, Trianguloan bilduko dira, azken deskargak egiteko; ondoren, ohiturazko aurrekua Zumardi Handian; 19:30ean, Zezen-errekortarien II. Lehiaketa; 23:00etan, su festak: Pirotecnia Zaragozana; 23:30ean, Pantxoa ta Peio; 00:00etan, Abiba disko jaia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

‘Sua’ mendian

IBARRA ▶ Haitzetan Raju taldeak antolatutako ibilaldi arrakastatsua ere baliatu dute Eneko Aritzaren Lagunek ‘Sua’ filmaren grabaketa egiteko



Erreketa baten eszena grabatu zuten Eneko Aritzaren Lagunek Gaztelun. HITZA

ERREDAKZIOA

Larunbat iluntzeko bederatzia, hiru gazte, Haitzetan Raju mendiko taldeak antolatutako martxarako azken prestaketan egin asmoz men-

dian barrena datoz. Hiru gazte hauek beste horrenbeste furgoneta janari, edari, mahai, Sua filmarako jantzi, kamara eta hainbat materialez beterik gidatuz datoz. Guztia prest dago, ustez, baina gure koka-

gunera gerturatzeko ari garela, ezustekoal Bidea itxita, eta ezin ezer egin. Bi hilabetetako prestaketa bertan behera botatzeko zorian egon arren ez dugu etsitzen, mugikorra hartu, eta beti bezala azken orduko ezbe-

har hauek hala nola konponetzen saiatu gara. Eta noski, baita lortu ere».

Ibarratik hasi eta Erroizpeko eta Uliko tontorrik igaro ostean Gaztelun amaitu zen, azkenean, Haitzetan Rajuk antolatutako mendiko martxa. Gorriri orde, beraz, han egin zuten Sua filmarako grabaketa Eneko Aritzaren Lagunek elkartekoen, «Gazteluko herritar guztien harrera onari esker».

50 bat lagun elkartu ziren plazan. «Uranga Harategiak prestaturiko bazkari bikain baten ondoren, guztiak filmarako jantzi, eta neska baten erreketaren eszena grabatzera jo genuen. Baita ederki grabatu ere; izan ere, inguruan dagoeneko izugarrizko aktoreak ditugu, Arantxa Luluaga tartean».

Hurrengo grabaketa uztailearen 15ean Seguran izango den Erdi Aroko Jaia aprobetxatuz egingo dute Eneko Aritzaren Lagunek filmagintza taldekoek. «Bertan ere jende asko beharko dugu, eta ohiturari jarraituz, grabaketa ondoren, parte hartu duten guztiak jai eder batez gozatzeko aukera izango dute. Beraz, adi ibili, eta ez galdu aukera!».

IV. Eskalada txapelketa

Urteroko ohiturari jarraituz, datorren urtean ere mendiko martxa antolatuko du Haitzetan Raju mendiko taldeak, ekainaren lehenabiziko igandean. Bestalde, dagoeneko prest du Ibarra jaietan egingo duen IV. Eskalada Txapelketa. «Ez izan beldurrik, eta animatu parte hartzera!», diote.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Beñat Ezenarro.
Gaur 6 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Nerea Lopetegui (Leaburu).
Gaur 20 urte. Zorionak etbekeen eta Mikelen partetik.

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza
agurren tartea

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

▶ **egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz**
▶ **uneoro informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info**

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

egunean 0,18 zentimoren truke etxean